

Katuak *mi-a-u, mi-au*
 Chakurrak berriz *au, au, au,*
 Bere paltak estali eziñez
 Larricho dabill gizon au.

Suturik Gibel-andi gauza oyek aditzian, artzen du picher ardoa, ura zalakoan, eta botatzen die burutik bera kantariei esanaz: Zuek bezalako giza-charrak ori merezi ditek. Chakurrak solomoa jan zuen, eta Gibel-andi oeratu zan, emakumeak, giza-charrak, katuak eta chakurrak berdintsu zirala esanaz.

Bigaramon goizian jaiki zan eta nola besperako moskorrak alde egin zion, gogoratzian zenbat kalte eta zenbat lotsari erakarri ziozkan bere denboran ardoak, egin zion promesa Santa Agerari urte bete osoan ez ardorik edateko. Kunplikuto du? Ez dakit, bada oraindik sei illa-bete dira au gertatu zala; eta denboraz esango dizue

UR-ZALE BATEK.

I.^{ko} SOMAKETA.

Miñ-artzean esan oi
 Dezu lenbiziya;
 Talua nai badezu,
 Bear dezu biya;
 Guztiya dezu gizon
 Onoregarriya.

(*Askantza urrengo lumero edo liburuchuan.*)



piskabat artzeko asmuarekin. Eraman zuten gela chiki batera, nun arkitu zuben gure konsultako gizona bakarrik mai baten aurrian chiki erdiko botilla arduarekin...

—Etzegoan orreatik orren bakarrik...

—Ta ogiya ta gaztarekin. Arriturik gelditu zan emakume ori, eta ziñaturikan esan zion.—Gizonchoa, ikaratzen nazu. Ainbeste kontu eman dizu medikuak esanaz ez ardorik erateko, eta ¿orrenbeste ardo eraten ari zera?—Demoñu-choroa; bañan ¿ez aldion aditu nola esan didan iru egunetik aurrera asitzeko erremeditan? Iru eguneko libertadea badiñat, eta oyen prohuba ondo atera bear diñat, bai; geroko parteak bear dizkiñat atera iru egun oyetan.

—Etzuben gauza zuzenik egingo.

—Ez bada. ¿Arrosak gogotik daude emen oraindikan?

—Bai jauna. Bañan igande arratsaldetan ez dakagu pakerik soldaru ta mutil koskorrekiñ. Ichubak dira loretara, ta bata bestien bizkarrera igo ta eramaten dizkigute nai dituzten guztiyak.

—Or dijuan jaun orrekin bi itz egin biar nituke... Gero arte Batista.

—Gero arte bada jauna.

MARCELINO SOROA.

I.^{ko} SOMAKETAREN ASKANTZA:

AITA.

